

# XEDAPEN OROKORRAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

## 1487

*EBAZPENA, 2023ko otsailaren 10ekoa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2022ko ekitaldirako uraren kanonaren hobariak eta salbuespenak aplikatzeko interpretazio-irizpidea ezartzen duena.*

### AURREKARIAK

2022ko urtarrilaren 1ean, Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko eta Finantzarioari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 4ko 229/2021 Dekretua sartu zen indarrean.

7.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, «Pertsona edo erakunde zergadunari ebazpena jakinarazten zaion urteari dagokion autolikidazioan eta ondorengo bi urteetan gauzatuko dira salbuespenak eta hobariak».

Subjektu pasiboak uraren kanonaren erregulazioan sartutako aldaketetara egokitzea errazteko, beharrezkotzat jotzen da 2022. urteari dagokion autolikidazioan eta hurrengo bi urteetan aplikatu ahal izatea 2023-07-01a baino lehen eskatutako salbuespen eta hobariak, aldeko ebazpen espresuarekin.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.– Oinarri juridiko formalak.

1.a Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeak 5. artikuluan Uraren Euskal Agentzia sortu zuen.

2.a 51. artikulua arabera, uraren kanona sortzen da.

3.a Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7 c) artikulua eta Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituen martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuaren 7.2 d) artikulua arabera, Zuzendaritza Nagusiari dagokio Agentziaren eskumeneko indarreko legerian uren arloan ezarritako zergak likidatzea.

II.– Juridiko materialak.

Dekretua aztertuta, ondoriozta daiteke indarrean jartzen denetik subjektu pasiboek 6. artikuluan aurreikusitako hobariak eta salbuespenak eskatzeko eskubidea izango dutela. Artikulu horrek honako hau ezartzen du:

«1.– Kanona ordaindu beharretik salbuetsita daude ur kontinentalen hartze edo sarrerak, erabilera edo kontsumo hauetarako:

a) Kontsumitu gabe, energia edo indar eragilea lortzeko baliatzea.

Salbuespen hori aplikatzeko, pertsona edo erakunde zergadunek eskabidea aurkeztu beharko diote Uraren Euskal Agentziari, ezartzen den ereduaren arabera. Eskabidearekin batera, kontsumorako ez den erabilera hori gertatzen den lekuaren kokapen-planoa aurkeztu beharko dute, non jaso beharko baitira ura hartzeko eta itzultzeko puntuak eta hartutako ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatuak.

b) Ingurunera itzultzen den hartutako ur-kopurua, ur-hartze gunetik gertu, errespetatu beharreko emari ekologikoaren zati legez.

Salbuespen hori aplikatzeko, pertsona edo erakunde zergadunek eskabidea aurkeztu beharko dute Uraren Euskal Agentzian, ezartzen den ereduaren arabera, eta, horrekin batera, memoria tekniko bat aurkeztu beharko dute. Memoria horretan, egiaztatu beharko da ur-bolumen horiek ur-hartze gunetik hurbil dagoen itzulera-puntu bat dutela eta errespetatu beharreko emari ekologikoaren parte direla, eta, bertan, bolumen horietako ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatua zehaztu beharko da.

c) Urtean 200 metro kubiko baino txikiagoko uraren hartze edo sarrerak.

Salbuespen hau aplikatzeko, pertsona edo erakunde zergadunek ez dute eskabiderik aurkeztu beharko Uraren Euskal Agentzian, baina dagokion baimen edo emakida administratiboa izan beharko dute.

2.– Zerga-oinarrian % 90eko hobaria izango du nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiliko den ura hartzeak edo sartzeak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-sektoreko organo eskudunak Euskadiko Nekazaritzako Ohitura Onen Kodea betetzen dela egiaztatzen badu edota ustiapen-koadernoak, ingurumen-arloko kontratua edo antzeko egiaztagirak baditu.

Hobari hori aplikatzeko, pertsona edo erakunde zergadunek Uraren Euskal Agentzian aurkeztu beharko dute eskabidea, ezartzen den ereduaren arabera. Horrekin batera, Euskadiko Nekazaritzako Ohitura Onen Kodea betetzen dela egiaztatzen duten agiriak, ustiapen-koadernoak, ingurumen-arloko kontratua edo antzeko beste egiaztagiri batzuk ere aurkeztu beharko dituzte».

7.1 artikulua arabera, «salbuespenak eta hobariak aplikatzeko, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren aldeko ebazpen espresua beharko da, eta ebazpen hori gehienez ere sei hilabeteko epean jakinarazi beharko zaie pertsona eta erakunde eskatzaileei. Ondorio horietarako, salbuespenaren edo hobariaren eskaera Uraren Euskal Agentziaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera zenbatuko da epea».

7.2 artikuluaekin lotuta jartzen badugu, «pertsona edo erakunde zergadunari ebazpena jakinarazten zaion urteari dagokion autolikidazioan eta ondorengo bi urteetan gauzatuko dira salbuespenak eta hobariak».

Bigarren apartatu honen hitzez hitzeko bertsioaren ondorioz, 6. artikuluko baldintzak betez, 2023ko ekitaldian aurreko aldiari dagozkion autolikidazioak aurkeztu dituzten zergadunek ezingo lukete inoiz lortu.

7.2 artikulua Dekretuaren espirituaren eta xedearen esparruan interpretatu behar da, uraren kanonaren subjektu pasiboak hobarien eta salbuespenen erregulazioan sartzean.

Argi dago legegileak ez duela helburu hobarien eta salbuespenen aplikazioa subjektu pasiboetara mugatzea.

Subjektu pasiboentzat interpretazio onuragarriagoa denez, 2022. urtetik aurrera eskatutako hobariak eta salbuespenak 2022. ekitaldira atzeraeraginez aplikatzeak ez dakar inolako lege-eragozpenik, arauaren helburuari dagokionez, ez baitira preklusiboak.

Bestalde, eta interpretazio hori babesteko, kontuan hartu behar da uraren kanonari buruz egin berri den arau-aldaketa, zeinaren ibilbidea 2008koa baita, eta, beraz, Uraren Euskal Agentziak erraztu egin behar ditu arau horren ezarpena eraginkorra izateko neurriak, aplikazioan sor daitezkeen disfuntzioak alde batera utzita.

2023ko martxoaren 28a, asteartea

Hala ere, lehen transkribatutako 7. artikuluko 1. apartatua 2. apartatuarekin lotuta dagoenez, irizpide hori aplikatuko da 2023-07-01a baino lehen eskatutako hobari- eta salbuespen-eskaerata hedatuko da, aldeko ebazpen espresuarekin.

Hobari eta salbuespen horiek 2022ko ekitaldian eta hurrengo bi urteetan hartutako bolumenen autolikidazioan aplikatu ahal izango dira.

Horregatik guztiagatik, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legea, Uraren Kanonari buruzko azaroaren 2ko 229/2021 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako arauak ikusita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ezartzea 2023-07-01a baino lehen eskatutako hobariak eta salbuespenak, baldin eta aldeko ebazpen espresua badute, 2022. urteari dagokion autolikidazioan eta hurrengo bi urteetan aplikatuko direla.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 10a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,  
ANTONIO AIZ SALAZAR.